

Mendiriz-mendi

Mendizaleak benetan errederiarak. Gure erria degu aurrenetakoena ontan. Ez da gaurkoa zaletasun au, aspalditik datorkio. Ez gaur bezela elkarte edo talde batean batuaz, bañan, zenbat eta zenbaitek, bere gisa, Jaizkibel alderako joera, Guadalupe'ko Amari ikustalditxo bat egiteko aitzakiarekin... Beste batzuek, Goizuetaldera, Urdaburu, Bianditz... Igandetan, batez ere, ibillaldi pranko egiñak gure gurasoak...

Ibilkari egokiak beti Errederi'n. Izenak ixilean gorde nai arren, batena ezin utzi: Urkia'tar Norberto. Ez zan gero makala, bera! Ark ezagutzen ez zuan txokorik ez, gure baso ta mendi gallurretan. Alako maixuak beren azia erein zuten, eta urte batzuen buru sortu zitzaigun errian "Urdaburu Mendizale Taldea". Emen ere, len lendik lana pranko egiñak baditugu, gaur elkarte edo talde onek daukan indarra lortu artean.

Gaur esan genezake Gipuzkoa'n len leena ez bada ere, "Urdaburu Mendizale Taldea" goieneko mallan dagola. Mendizale billera guzietan errederiarak ugarie-nak. Mendi gutxi Euskalerrian urdaburutarrak oinperatu gabeak. Eta gure Erritik kanpora ere, gallur ezagun guzietan izanak gure mendizaleak.



Urdaburu'ko mendia

Len aitatutako aziak ekarri diola "Urdaburu Taldeari" gaurko sua, esan berriak gera. Eta Jaunari eskerrak, orain ere, azi berritzeak jarraitzen du. Mutil kozkor sendorik hada tartetan, ta aurtxoetara jotzen hadegu, nexkatil ta muttiko lirain ta argirik ere bai.

Urteetan aurrera goazenontzat pozgarria benetan gure aurrak mendiruntz ikusteak. Bianditz tontorrean entzunaz: —"Amatxo, Alamedan baño obeto gaude gero emen..."; edo ta beste au, Igaratza'ko atarian: —"Kanpora atera al giñezke? —Bai, ume, bai; emen ez zaitu trolebusak zapalduko!"

Txorotzat artzen gaituzte batzuek: —Bazabiltzate orain ere alperrik ler egiten, izerdi patsetan edo otzak eta blai blai euritan..." Alaxe da, axaletik ala dirudi, bañan gure barruko alaitasuna, goruntz goazela, eta batez ere, mendi gallurrera iritxen geranean nabaitzen degun pakea, ezin itzetan esan. An goian zerutxo batean arkitzen gera. Ixilik... geldirik... Bein goiak jota "egonien egoki", artzai zar batek esaten zuan eran.

Gure lantegiko kezak, etxeko goraberak, merkatua egin bearreko buruausteak (etxekoandre gaixoak diotenez, egunian, egunian, geiago bear degu, nora goaz?), danak alde batera uzten ditugu, Aralar edo Aitzkorri aldean egun batzuek igarotzen ditugunean.

Gaurko mendizaletasuna ez omen da antziñakoa bezelakoa. Askoz ere exkaxagoa dala idatzi du norbaitek, orain egun gutxi izparringi batean. Ta exkastasun au emakumeak mendizaletasunera jo dualako omen da.

Arrazoi auetan jakintsua izango da bear bada ori esan duana. Baditeke, baño ni ez nago berakin. Gaur ikusten degunez, beñere baño jende geiago joaten da mendira, joan ez ezik, ibili ere bai, ori idatzi duana ta gu gazteak giñan añean, geiago ez bada. Len baño obeto prestatuak, naiz jantziz, naiz mendirako bear diran tresnaz. Len baño ezagunagoak gure mendi ta baztarrak.

Orain errextasun geiago dagola arat-onat ibiltzeko? Ori bai. Emakume buru-arin xamar asko joaten dala mendira? Baita ere. Ta nora ez? Eta gizonetan, kaxkariñik ez al da? Nolakoak ote giñan gu 18/20 urtetan?

Utzi ditzagun alde batera lengo ta oraingo denborak. Ikusi ditzagun gauzak diran bezela eta aitortu dezagun gure begiak eta gu baño ogei-ogeitabost urtez gazteago diranenak, ezin dituztela gauzak berdin ikusi. Eta batez ere, emakumeari ez beintzat zama bota... Emakumea naiz, eta mendia, mendia dalako maite det. Ta ni bezelakoak beste emakume asko mendi arazoetan zernai egiteko prest gaudenok. Ibiltzen berriz, neroni makala izan arren, lagun asko ditut makiña bat gizon baño trebeagoak...

Mendiriz-mendi, errederiarren mendizaletasuna aiatuaz asi naiz, eta ez dakit nora jo detan. Banoa berriro mendi aldera, al detana egitera. Gallurrera iritxen ez ba naiz ere, ekin akioan beintzat aldapari.

ARBIZA'TAR K.